PORRONTXO

JAIAK

1994

ÍRAÍLAK

14 ASTEAZ.

15 OSTEG.

16 OSTIR.

17 LARUN.

18 IGANDEA

EGIA

13. Porrontxo jaien AGURRA

Bagaude berriro ere Porrontxoak ospatzeko prest. Joan zitzaizkigun negu-udarak, eta irailaren hirugarren astea erabiliko dugu beste urte batez auzoa alaitzeko. Alaia da berez gure Egia hau, ezin uka, baina urtean behin ez bada ere, eguneroko bizimoduari aldaketatxo bat ematea onuragarria eta beharrezkoa da. Ez gaitezela herdoildu.

Aterako gara koadrila guztiak kaleak koloreztatzera. Jolastuko dugu, dantza egingo, bapo jan eta edango, eta ohizko ordutegia ahaztuko. Orduei dagokionez, gaugiroa dastatzeko Donostiako Udalak geroz eta traba gehiago ezarri nahi dizkigun honetan, asmatu beharko ote ditugu bafle isilak eta parranda mutuak? Edota musika talderik ezean, dantzatuko al dugu walkmanak jarrita, zientzia-fikziozko automaten itxuraz?.

Froga dezagun jaietarako eskubidea dugula guztiok kalera ateratzen eta ekintza derberdinetan parte hartuz, orain arte egiatarrok egin izan dugun moduan. Argi gera dadila guztion ekimenez bideratutako asmoak murriztezinak direla, festa giroa nagusi izatea helburutzat hartuz.

Jaian murgilduta ere, ez ditugu ahaztuko gure eskari zahar-berriak, pozik bizitzeko ez bait dira bakarrik bizibaldintza egokiak behar; itxaropenak ere nahitaezkoak dira. Eta itxaropenak egiaztatzera daraman bidea ez da etengo Porrontxotan. Edukiko ditugu gogoan auzoko presoak eta, nola ez, askatasunaren bidean betirako joan zaigun Jose Mari "Ijitu" ordiputzkidea.

Irten ba, festak ospatzera, pozez (eta arduraz, ez dadila hamairua zenbaki txarra izan), eta igande gauez, etxeratzerakoan, ez ahaztu: datorren urteko Porrontxoak helduko dira, bitartean ere gozatzeko saioa delarik. ONDO PASA.

Festa Batzordeak eskerrak ematen dizkie Porrontxo jai hauen egitaraua egiten lagundu duten dendari eta auzokide guztiei

La Comisión de Fiestas agradece a los vecinos y comerciantes del barrio que con su ayuda han colaborado en la realización de este programa de fiestas

DATORREN URTEKO EGITARAUAN IRAGARKI BAT JARTZEA NAHI BADUZU, ARRANO ELKARTEAN JAI BATZORDERA DEITU DEZAKEZU.

SI QUIERES ANUNCIARTE EN ESTE PROGRAMA EL AÑO QUE VIENE PUEDES AVISAR A LA COMISION DE FIESTAS EN LA SOCIEDAD ARRANO.

Azken oharra: antolatzaileek ez dute bere gain hartuko egitarau honez kanpo gerta litezkeen ezbehar edo istripuen ardurarik.

Nota: La organización no se hace responsable de los percances que pudieran ocurrir al margen de los actos organizados.

Aupa neskak!

Desiatutako PORRONTXO JAIAK hemen ditugu berriro.

Dakizuenez jai hauetan joku eta ekintza asko antolatzen dira; hala ere Porrontxoetan, beste edozein jaietan bezala, ekintzetako parte hartzaile gehienak gizonezkoak dira.

Emakumeak!, neskak!, "Jadanik" taldekook jaien inguruan antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko zirikatzen zaituztegu, Porrontxo jaiak denonak baitira.. Beraz... arauak hautsi!, animau eta parte hartu!, emakumeak izateagatik ez duzu okerrago egingo.

Eta jaiaren hariari jarraituz beste gai bat datorkigu, tamalez askotan (batez ere jaietan) aipatu eta gertatzen den gai bat: Eraso Sexualak.

Bortxaketa ez da eraso sexual bakarra: ipurdia ikutzea, bapatezko besarkada hori, ahozko lore (ala ipurdizkoa?) lore nazkagarria... eskatu eta nahi ez dituzun gauza guzti horiek ere erasoak dira, zuk hala sentiturik.

Jai hauetan ez gaitzatela errudun sentiarazi, ez gure jazkeragatik, ezta dantza egiteko ere edota maitatzekoagatik; azkenean erasotuak geu baikara.

Neska! erasoa ez da behin eta emakume soil bati gertatutako ekintza bat, erasoa emakume guztion arazoa da.

ERASOEI ERANTZUN ZUZENA!
NESKAK, ONDO PASA ETA JAIAK BIZI!
MUTILAK, ONDO PORTAU!

JADANIK, Egiako Emakumeen Taldea

OHARRA: Jaietan auzokideak animatzen ditugu terrazak apain ditzaten, ikurrina, kolorezko globoekin edo nahi duten bezala.

NOTA: Animamos a los vecinos a que colaboren en fiestas ADORNANDO las terrazas con la ikurriña, con globos de colores o como mejor se les ocurra.

AIZU ¡ JAIAK ONDO PASA !

ALKOHOLAK ETA TABAKOAK EZ ZAITZATELA BEREGANATU

BERE ERABILPENA ZURE ESKU DAGO

EZ APARKATU NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos-as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

PLAZA BERRI ALDEA: (Karmendo Ama eta Ur-Zaleak pasabidea).
Dantzaldia eta jai ekintzak plaza honetan egingo direnez jendea ugari izango bait da. Astearte goizetik aurrera.

ZONA DE PLAZA BERRI: (Virgen del Carmen, Pasajes de Ur-Zaleak) ya que las verbenas y actos festivos se realizarán en dicha plaza con la consiguiente aglomeración. Desde el martes a la mañana.

TEJERIAK: Ostirala arratsaldetik igande gaua arte (kuadrilen Afaria).
A partir del viernes a la tarde hasta el domingo a la noche (Cena de cuadrillas).

KARMENGO AMA ETA TEJERIAREN ARTEKO KALEA: (OSTOTSA TABERNA):
Larunbatean kuadrilen jolasak eta igandean Herri kirolak.
El sábado juegos de cuadrillas y el domingo Juegos rurales.

TEJERIA ETA KARMENGO AMAK: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan Kronoeskalada. Viernes a la tarde en doble fila Cronoescalada.

"PORRONTXO JAIAK" ABESTIA

Neska mutilak haurrak
eta helduak
danok pozez
kuadriletan
gora Porrontxo, aupa
atorrantiak
gozatu gure jaietan

Urtero ospatzen ditugu
jai zoragarriak
gure lanaz auzora
pozez erakutsiak
kuadrila guztien artean
erabakiak
horregatik diogu direla
guriak

Giro herrikoia dago
gaur gure auzoan
amnistiaren ametsa
beti dugu buruan
ikurrina jarrita dago
gure etxean
danok pozez salto ta
dantza kalean

Carpintería - Ebanistería

José Añorga

Ametzagaña, 7 (trasera) Teléfono: 28 88 71

Restaurante TEJERIA

Comidas y Despedidas
Y el lunes 19 abrimos

Eguneko menua - Menú del día
Tejería 9 - EGIA Tel. 28 23 04

EGITARAUA

ASTEAZKENA, 14

19,00 Buruhaundi eta Erraldoiak TIRRI-TARRA txarangarekin.

20,00 Suziri eta Porrontxoen jeitsierarekin Jaien hasiera.

20,00 Koadrilen jeitsiera TIRRI-TARRA eta TXALUPA txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.

23,00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin.

23,00 MOZOLOAK txaranga.

24,30 Karaoke jokoa Plaza Gorrin.

OSTEGUNA, 15

12,30 ORERETAKO dultzainariak.

17,30 Buruhaundi eta Erraldoiak IZENGABEKOAK txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.

18,00 Haur jeitsiera IZENGABEAK txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.

19,30 Kale antzerkia. MOZOLOAK txaranga.

19,30 Plaza Berrin haurrentzako Dantzaldia KIKI, KOKO MOKO eta FLAX pailasoekin

20,00 Koadrilentzako jokoak: ping-pong, futbolina eta txapa lasterketa Plaza Gorrin.

22,00 TXALUPA txaranga.

23,00 Dantzaldia TAPIA eta LETURIA BANDaren eskutik.

01,00 Banana dantza jokoa.

01,30 Plaza Gorrin piszina jokoa.

OSTIRALA, 16

08,30 Diana ORERETAko dultzainariekin.

12,00 Plaza Berrin GOLOKA haur antzerkia "HARRIAREN GARAIA" aurkezten

12,00 ROKODROMOA.

12,30 MAIDER eta ALAITZ trikitilariak auzoan zehar.

16,30 Atotxako plazan, haurrentzako jokoak eta ROKODROMOA.

18,30 Buruhaundi eta erraldoiak MOZOLOAK txarangarekin.
19,30 Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.
20,30 Ordiputzak koadrilako partaidea zen JOXE MARI "IJITU"ri omenaldia.
21,00 Kantaldia "EL GALES"ekin.
22,00 JATORRENAK txaranga.
23,30 AUZOKO TXISTULARIen kalejira.
23,30 Dantzaldia IRATXOAK taldearekin.
01,00 TXALUPA, txaranga.
01,00 Apar jokoa, Plaza Gorrin.
04,00 MOZOLOAK txaranga.
05,00 Baratxuri zopa, Arranoko kalestuan.

OHARRA Arratsaldez, Plaza Berrin, mural bat jarriko da denok margotzeko, gaia: **INTSUMISIOA**

LARUNBATA, 17 PRESO, DEPORTATU ETA ERREFUXIATUEN EGUNA.

07,00 Diana ORERETAko dultzainariekin.
11,00 Egian zehar, NI FU NI FA malabarista taldea, HANKATRANKA TRANKAPALU taldea, PORRONTXO ERRALDOIAK eta ORERETAko dultzainariak auzoa alaituz.
11,00 Plaza Berrin Artisau, Diska Liburu erakusketa eta Taloak.
11,00 Gladys-enea parkean haurrentzako txokolatada eta jokoak SEBASTOPOLeko Titiriteroekin.
16,00 Koadrilentzako jokoak: mus eta altxorraren bila.
16,30 JATORRENAK txaranga.
17,30 Pirautxo lasterketa Urumea ibaian.
18,30 Gozategi trikitilariak
19,30 Iraunkorrak txaranga.
20,00 MOZOLOAK txaranga.
21,30 Koadrilen afaria IKER eta GURUTZE trikitilariekin eta brindisarekin.
23,00 Dantzaldia IZOTZ taldearekin.
24,00 Iraunkorrak txaranga.
24,00 Amnistiaren aldeko kalejira.
01,30 ZUBIETAKO TTUNTTURROAK
03,00 TXALUPA txaranga.
05,00 Txokolatada.

IGANDEA, 18

06,30 Diana ORERETAKO dultzainariekin.
07,30 Oilasko jatea Atotxako Plazan.
08,00 Koadrilentzako jokua: globo borroka, Atotxako Plazan.
09,00 Txalaparta.
09,30 AITOR IKASTOLAKO TXISTULARIAK auzoan zehar.
10,00 JATORRENAK txaranga.
11,00 Pilota txapelketako finala Atotxako Frontoian.
12,00 Jotak: PROMESAS DE LA JOTA.
13,00 Sagardo dastaketa ALKORTA ANAI ARREBA trikitilariak eta MIKEL MENDIZABAL, GORROTXATEGI eta IOSU ZELAIA bertsolariekin.
14,30 Bazkari herrikoia. (Informazioa eta txartelak betiko tabernetan egongo dira). **ERROMERIA**
17,00 Koadrilentzako jokua: herri kirolak.
18,00 Herri kirolak: IGELDOKO HERRI KIROLA ELKARTEA: trontzalariak, aizkolariak, lokotxa, txingak, zakuak, siltzea ...
19,30 Sardinada eta ALKORTA ANAI ARREBA trikitilariekin koadrilen arteko Fandango eta Arin-Arin eta Irrintzi txapelketa.
20,00 IMUNTZO ETA BELOKI.
21,00 MOZOLOAK txaranga.
22,00 Egian zehar koadrilen kalejira euskararen aldeko Dragoiarekin.
23,00 Azken traka, Porrontxoaren erreketa eta Jaien amaiera.

Udaletxea!

Piszina, Pasadizoa, Auzoetxea... NOIZ?

EGIAREN BETI GEZURRETAN

Egiako Elkarteen Koordinakundea

GAZTEOK GURE AKTIBITATEAK EKITEKO BEHAR DEN BEZALAKO LOKAL BAT BEHAR DUGU!!

EGIAKO GAZTEEN ASANBLADA

- **AUTOGESTIONATUTA!**
- **AUTOFINANZATUTA!**

IRAILAK 14, 15, 16, 17 'ta 18
PORRONTXO JAIAK 94
EGIA

PORRONTXO
IRAILAK 14, 15, 16, 17 + 18
JAIAK 94

EGIA
IRAILA IRAILAK IRAILAK
14
asteazkena
15
osteguna
16
ostirala
PORRONTXO JAIAK
1994
IRAILAK
17
amnistia askatasuna
larunbata
IRAILAK
18
igandea

PORRONTXO JAIAK
1994
IRAILAK
EGIA